

ANIZTASUN SOZIOEKONOMIKOA, LINGUISTIKOA ETA KULTURALA: AUKERAK ETA ERRONKAK (talde-gogoeta)

Pili Sagasta, Karmele Perez-Lizarralde, Eneritz Garro, Nagore Ipiña, Nekane Arratibel, Amelia Barquín, Nerea Alzola, Marta Quintas, Ana Perez, Aingeru Otxotorena (Mondragon Unibertsitateko ikerlariak, *Beren jarrerak eta praktikak ikertzen dituzten hezkuntza komunitateak: aniztasun sozioekonomikoa, kulturala eta linguistikoa* proiektuaren partaideak).

2016-2019 ikasturteetan MUko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko ikertzaile talde batek eta bi ikastetxek —Eskoriatzako Luis Ezeiza ikastetxeak eta Eibarko Arrateko Andra Mari ikastetxeak— elkarrekin gauzatu dute honako izena duen proiektua: *Beren jarrerak eta praktikak ikertzen dituzten hezkuntza komunitateak: aniztasun sozioekonomikoa, kulturala eta linguistikoa*. MUko ikertzaile-taldeak eta bi hezkuntza-komunitate horiek elkarlanean aztertu dute nolako jarrerak eta praktikak dituzten ikastetxe horiek aipatutako aniztasun sozioekonomiko, linguistiko eta kulturalarekiko.

HIK HASIk eta MUK jardunaldi bat antolatu dute bi hezkuntza komunitateetako eragileen ahotsak entzun ahal izateko: *Aniztasun soziala eskolan: komunitatearen ahotsak* (Donostia, 2019-2-16). Jardunaldi horretan bi ikastetxe horietan egindako ibilbidea praktika on moduan agertu da. Hezkuntza komunitate horietako hainbat partaidek —ikasleek, familieek, irakasleek eta zuzendaritzako kideek— azaldu dute zer alderdi landu dituzten, zertan jarri duten bereziki arreta ikastetxe bakoitzean, nola bizi izan duten prozesua, nola antolatu duten lana... Egindako bidearekiko haien begirada eskaini digute, haien ahotsa entzun dugu.

Komunitatearen ahotsak entzun ondoren, lau eztabaida-mahai antolatu dira jardunaldian, egon diren partaide guztion artean eztabaidatzeko zer aukera eta zer erronka partekatzen ditugun. Lau galderaren bueltan hausnartu dugu hainbat irakaslek eta gurasok. Hauek dira hausnarketa horretatik ateratako ideia batzuk.

1. galdera. Nola kudeatzen da aniztasun sozioekonomikoa zure ikastetxean? Zeintzuk dira erronkak?

Erronkak

- Aniztasun sozio-ekonomikoa kudeatzea eskolaren funtzio bat da. Bere eginkizunaren parte bat da, hain zuzen, desberdinkeriak gainditzeari begira, **ikasle guztiek aukera berberak** izan ditzaten.
- **Desabantailaren ondorioak une oro kudeatu** behar dira ikastetxean: familiaren eta ikastetxearen arteko distantzia doitu, espektatibak doitu, curriculuma doitu...
- Ez da soilik ikastetxearen ardura izan behar; ume batzuek bizi dituzten desabantailak kanpotik datoz. Hala ere, **irakasleak kontziente** izan behar dira ikasleak nola heltzen diren alde horretatik ere.
- Irakasle guztiek ez dute sentsibilitate berbera arlo honetan; **irakasleen formazioa** garrantzitsua da sentsibilitate hori esnarazteko eta areagotzeko.
- **Aisialdiaren kudeaketa ekitatiboagoa** bilatu behar da: ume eta gazte ugari desabantailan daude eskolaz kanpoko denboran baliabide ekonomikoen faltarengatik.
- Ikastetxe batzuetan gertatzen den **eskola segregazioa da aniztasun sozio-ekonomikoari uko egitearen ondorioa**, besteak beste. Familia batzuek aniztasun hori daukaten ikastetxeak ez dituzte nahi eta beste batzuk aukeratzen dituzte. Gizarte erronka da segregazio prozesu horietan esku hartzea.
- Familiei dagozkien **diru-laguntzak** (material-beka eta jantokiko beka) ez dira ordaintzen ikasturtea hasi eta berehala, hilabete askoren ostean baizik. Horrek traba sortzen die familiei (dirua aurrerratu behar dutelako) eta ikastetxeei (batzuek diru hori aurrerratu behar dutelako familiak beka kobratu arte). Hezkuntza administrazioetik familiei diru-laguntzak garaiz entregatzea litzateke gakoa.
- **Ikasketen digitalizazioa** ez da erraza familientzat; batzuentzat egin behar den gastua zailtasun handia izaten da (ordenagailu eramangarria, Internet zerbitzua etxerako...).
- **Etxe lanen izaeraren** arabera (ondo egiteko familiaren laguntza beharrezkoa den ala ez, eta baliabideak behar diren ala ez, etxe guztietan ez baitaude betiere eskura),

desberdinkeria erreproduzitu daiteke. Arlo horretan esku-hartze egokia egitea garrantzitsua da.

- **Metodologia** tradizionala ere izan daiteke nahigabeko tresna bat umeen arteko desberdinkeriak areagotzeko. Etxean baliabide ekonomiko eta kultural ugari dituztenei metodologia tradizionala hobeto etorri ahal zaie, etxean baliabide gutxiago duten umei baino. Denei ondo datorkien metodologia erabiltzea da irakasleentzako beste erronka bat.
- Ume batzuk konturatzen dira haien familiak pobreak direla, haiei dagokiela beti laguntza jasotzea. Ikastetxeak **funtzio konpentsatzailea** du. Eta aldi berean desabantaila ekonomikoan dauden ikasleen sentsibilitatea ahalik eta ondoen zaindu behar du.
- Ikastetxe kontzertatuen kuotaren inguruan ez da hitz egin (eztabaidan parte hartu duten lagun gehienak eskola publikoko irakasleak izan dira). Bai aipatu da, berriz, ikastetxe publiko batzuetan urtean kobratzen den **kuota** (materiala ordaintzeko, irteeretako garraioak ordaintzeko, ikuskizunetarako sarrerak...). Hori ere bada zailtasuna familia batzuentzat.
- Bizkaian, 2 urteko gelan, beste herrialdeetan ez dagoen figura bat dago, “hezitzailea” hain zuzen, eta gurasoek ordaindu behar izaten dute (EHIGERen bitartekaritza erabilita). Horrek esan nahi du familiek diru kopuru finko bat ordaindu behar dutela hilabetero, eta familia guztiek ezin dute hori eman.

Estrategiak

- Ikastetxe ugarritan **diru fondo bat** daukate, hain zuzen familia batzuek ordaindu ezin dituzten gastuei aurre egiteko: materiala erosteko, txangoetara joateko... Aipatu da ikastetxe batean ume bat txangora ez joateko arrazoi nagusia kulturala zela uste zutela irakasleek, baina denborarekin jakin zuten arrazoi hori ekonomikoa zela. Ikastetxe batzuetan, irteerak egiten direnean, jantokian ogitartekoak ematen zaizkie umei, eta hori lagungarria da familia batzuentzat.
- Fondo hori osatzeko hainbat bide egon daitezke: beste arloetatik gelditzen den dirua erabiltzea, eskolan azokatxo bat antolatzea (pastelak, pitxiak, kamisetak... saltzeko, adibidez).
- Dirua lortzeko eskolako kamisetak saldu direnean, ikusi da ume batzuek ezin izan dutela kamisetarik erosi. Hala, kamiseten fondo bat ere egin da ikastetxean, txiki

geratzen diren kamisetak jasotzeko; horiek ume batzuei oparitzen zaizkie, denek eskolako kamiseta eraman ahal izateko.

- **Testu liburuen kudeaketa solidarioari** garrantzia ematen zaio hainbat ikastetxetan. Haietako batzuetan, DBHn ere bultzatzen da, Gurasoen Elkarteak kudeatuta.
- **Beken kudeaketa** zaila da familientzat eta ikastetxeentzat. Kasu batzuetan dirua ikastetxeko kontuan ingresatzen da zuzenean, kudeaketa hori errazteko asmoz; batez ere bekarekin estali behar ziren gastuak egin baldin badira dagoeneko.
- **Materialen berrerabilpena** da irakasle batzuek bultzatzen duten beste estrategia bat. Adibidez, orrialdeak oraindik erabili gabe dituzten koadernoak gordetzen dira ikasturte batetik bestera, eta umeek horrela jokatzeko dute, urtero koaderno berriak erosi beharrean.
- Ikastetxe batzuetan kontziente dira **etxeko lanen izaerak** umeen arteko arrakala areagotu dezakeela, eta askotariko erabakiak hartu dituzte arlo horretan: etxeko lanak ez eskatzea, gurasoen laguntzarik gabe egin daitezkeen etxeko lanak eskatzea, etxe guztietan ez dauden baliabideak ez eskatzea, zama bihurtuko ez diren etxeko lanak eskatzea, hurrengo klasean lan horien balorazioa irakaslearen aldetik gogorregia ez izatea...
- **Jantokiko beka** berandu jasotzen da eta ikastetxeek modu askotara jokatzeko dute errealitate horren aurrean. Batzuek ikasleari jantokia erabiltzen uzten diote, eta jantokia ordaintzeko dirua ikastetxeek eurek aurreratzen dute. Horretarako fondo bat gordetzen dute. Beste batzuetan, berriz, familiak aurreratu behar izaten du dirua, eta ezin badu, umea ez da jantokira joaten. Azken kasu horretan gerta daiteke familiak beste ikastetxe bat nahiago izatea, non malgutasun handiagoa izan dezakeen ordainketarekin. Ikastetxeak jantokiko dirua ez aurreratzea zailtasun ekonomikoak dituzten familia batzuek ikastetxe horretan seme-alabak ez matrikulatzeko modu bat izan daiteke.
- **PROA plana** (Eskola-laguntza Programa) desabantaila ekonomikoari erantzuteko estrategia gisa hartu daiteke. Familia batzuek erabakitzen dute errefortzurako klase partikularrak ordaintzea. PROAk, berriz, laguntza jasotzeko aukera eskaintzen die ikasketekin zailtasunak dituzten ikasle guztiei, haien familiaren errenta zein den berdin izanik.
- Aisialdiko arloan gertatzen den desabantaila dela eta, herri batzuetako udalek aukera interesgarriak eskaintzen dituzte. Eibarko Udalak, adibidez, umei **jarduera bat dohainik** eskaintzen baldin eta haren familiak RGI/DBEa jasotzen badu.

Eskoriatzako Udalak, berriz, erraztasunak ematen ditu ludotekako zerbitzua erabiltzeko, eta umeak urtean zehar zerbitzua erabiltzen badu, udan egiten den barnetegira dohainik joateko aukera ematen zaio.

2. galdera. Nola kudeatzen da aniztasun kulturala eta linguistikoa zure ikastetxean? Zeintzuk dira erronkak?

- Ikastetxe batzuetan ez da ikusten aniztasun kultural eta linguistikoa, eta beste batzuetan ikusi egiten da, baina ez da ikusten tratatu/kudeatu behar denik.
- Ikastetxe batzuetan **harrera** eta hainbat proiektu garatzen dira aniztasun hori kudeatzeko. Harrerari dagokionez, kultur teknikariaren figura eta harrera planak garrantzitsuak dira, eta proiektuei dagokienez, “familien eguna” edo “eskolako festa” bezalako adibideak aipatu dira. Horietan familia bakoitzak bere lurraldeko ohitura, janariak... azaltzen ditu.
- Ikasleari eta bere familiari harrera egiteaz gain, ikasleari harrera egingo dion gelako kideak ere harrera horretarako prestatu beharra azpimarratu da.
- Ikastetxetik haratago, **komunitatearen garrantzia** azpimarratu da kudeaketa horretan. Ordizian egiten den “familia laguna” esperientzia azaldu da.
- Ikastetxe batzuetan haur etorkin kopurua txikia denean, **euskara** ondo ikasten dutela azpimarratu da, eta horrez gain aipatu da euskara eta gaztelaniarik ez duten haur etorkinen kasuan komunikatzeko beharrak berak bultzatzen dituela euskara ikastera.
- Hizkuntza aniztasunari erantzuteko eta familiekin komunikatzeko **bileretan itzultzaileak** erabiltzearen beharra/garrantzia aipatu da.
- Ikastetxeetan **HIPi** —Hizkuntza Indartzeko Irakaslea— egonkorra izatea eskatu da.
- Ikastetxean aniztasunaren egoera ezagutzea eta **irakasleei ere harrera** egokia egitea aipatu da. Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuan jasota egon beharko lukete aniztasuna kudeatzeko irizpideek, ikastetxearen egoera zein den irakasle berriei azaltzeko, eta azalpen hori klaustratik kanpoko norbaitek egitea komenigarria litzateke, esate baterako Berritzeguneek, uste baita horrela legitimazio handiagoa lor daitekeela.
- **Irakasleok aurreiritzi asko** dugu aniztasunaren gainean eta ikusten edo entzuten dugun hainbat portaeraren aurrean ez dugu ezer egiten askotan.

- Proiektu pilotuetatik haratago, **sistematizaziora jo** beharko luke Eusko Jaurlaritzak. Gobernuak plan bat egin du, baina ez dago politika bat eta ikastetxe bakoitza bere kabuz dabil. Nahi dugun gizarte eredua dago oinarrian eta horretaz ez da eztabaidatu, hor dago eztabaidaren muina.
- Ikastetxe batzuetan aniztasun kultural eta linguistikoaren kudeaketa norberaren esku geratzen da, ez dago **planifikatua**. Borondatezko zerbait bihurtzen da.
- Bereiztu beharko genituzke atzeritik etorritako haur kopurua eta atzeritik etorritako gurasoen seme-alabak baina bertan jaioak direnak. Denak zaku berean sartzen ditugu eta ez dira gauza bera.
- Ikastetxe askotan familiei informazioa euskaraz eta gazteleraz soilik bidaltzen zaie eta gurasoek ez dituzte hizkuntza horiek ulertzen. Beste kasu batzuetan emailaz bidaltzen da informazioa eta emailik ez dute hainbat familia-kidek.
- Azken urteetan planak planaren gainean ari gara egiten eta gero gehienetan kajoi batean gordeta geratzen dira. Adibidez, ikastetxe guztietan harrera planak egiten dira. Ezingo ote liriateke egindako horiek erabili betik hutsetik berriak sortzen aritu gabe?
- **Klaustroak**, orokorrean, asko aldatzen dira ikasturte batetik bestera. Gutxieneko **egonkortasun** bat lortu beharko litzateke. Aldaketak hain handiak izanik ezin da ezer eraiki. Ikastetxearentzat ere zama bihurtzen da ikasturtez ikasturte irakasle guztiei harrera egiten aritzea. Baina egonkortasun horrek bakarrik bermatuko luke kudeaketa egokiagoa izatea? Agian ez kasu guztietan. **Inplikazioa** eskatzen du horrelako proiektu batek.
- Egungo sistemak ez digu balio benetako hezkuntza-proiektu bat eraikitzeko. Zuzendaritzako kideek, irakasleek... proiektua hautatzeko eta bertara atxikitzeko aukera izan beharko lukete. Egun jende asko behartuta doa ikastetxe/proiektu batera, bertara joatea egokitu zaiolako, baina bere asmoa ahalik eta azkarren beste nonbaitera joatea da. Sinesten dugun proiektuetan lan egiteko aukera bermatu beharko litzateke. Horrek aldi bereran tokian tokiko hizkuntza aniztasuna mantentzen lagundu dezake eta bertako kultura eta komunitatea indartzen ere bai.
- Inklusioaz ari gara azken urteetan, baina integrazio eredu batean gaude. Erronka daukagu oraindik ere zentzu honetan.
- **Aniztasuna ala haurraren garapena kudeatu** behar dugu? Non jarri behar dugu arreta?

3. galdera. Zeintzuk dira aniztasun kultural eta linguistikoari arrakastaz erantzuteko gakoak? Zer dago ikastetxe eta irakasleen esku? Zer hartuko dugu gure gain?

- Lehen zalantza: **zer da arrakastaz erantzutea?** Zer identifikatzen da arrakastarekin? Zer da arrakasta pertsonala? Seguru asko arrakasta-adierazle ezberdinak identifikatuko dira ikastetxeetan.
 - o Hemen aurkeztu den proiektuaren harira, parte-hartzea (hezkuntza-komunitatearena) arrakasta-adierazle bat izango da.
 - o Arrateko Andra Marin definitutako ikasleen profila ere arrakasta hori definitzera etorri da zehazten duenean zein kompetentzia izan behar dituen ikasleak.
- **Ikasleak errespetuan** hezteaz hitz egin da. Eta horren lehen urratsa da besteak (beste pertsonak, beste kulturak, beste hizkuntzak...) ezagutzea. Hor izan ohi dugu lehen oztopoa. Horrek ekarriko luke:
 - o Aurreiritziak apurtzea, ez soilik ikasleek, baita irakasleek ere.
 - o Gure buruarekiko kritikoak izatea: kontuan hartu jatorri anitzeko klaseen kasuan, bertakoak ez diren ikasleek dakizkitela hizkuntza gehien, bizi-esperientzia gehiago izan dituzte, era askotako ekarpenak egin ditzakete...
- **Irakasleak hainbat ardura** ditu erantzunen arrakasta horretan:
 - o **Haurren eta familien ulermena eta inklusioa sustatu** behar ditu: batzuetan nahikoa da familia-hizkuntzara oharrak itzultzea (horrek arazoak eragiten ditu ikastetxe batzuetan, ikastetxeak erabakia baitauka ez dituela mezuak itzuliko familia-hizkuntzetara; beste batzuetan itzultzaileak falta dira bitartekari lanak egiteko).
 - o Bera **bitartekari kulturala** ere bada. Sarri ez da nahikoa familiak mezuen hizkuntza ulertzea, hortik harago, ikuspegi kulturala ere badago: bizikidetzara- arauak, jaietako jantziak...
 - o **Bi norabidetako elkarrizketa** sustatu behar du, transmisioetik harago, elkar ezagutza sustatzeko.
 - o **Komunikazioa hobetzea** erronka garrantzitsua da.

- **Eskola** ulertzen dugu **elkarrizketa-gune garrantzitsu** moduan, bertan elkartzen baitira haur eta familia guztiak.
- **Gelako metodologiak** garrantzi handia dauka arrakastarako bidean:
 - o **Metodologia irekiek** aukera handiagoa eskaintzen dute ikasleak elkarrekin aritzeko eta ikasteko, ikasle bakoitzari erreparatzeko... (proiektuetan oinarritutako ikaskuntza aukera on moduan agertu da).
 - o Hizkuntzetan murgiltzen laguntzen duten testuinguruak azpimarratu dira. Hor kezkarri eta garrantzitsu moduan agertu da **euskararen ikaskuntza eta erabilerarekin** daukagun auzia:
 - Garrantzitsua euskara guztion hizkuntza komun moduan ulertzea: atzerriko familien artean gertatzen da seme-alaben arteko hizkuntza euskara izatea, eta hori bihurtzen da haien harreman-hizkuntza eskolan, gaztelaniaren aurretik.
 - Errazago ikusten da LHko zikloetan eta lehen hizkuntza moduan espainiera ez daukaten ikasleekin.
 - Zailtasun nabariak antzematen dira DBHra datozen ikasleen kasuan, are gehiago haien lehen hizkuntza espainiera bada. Adibide moduan agertu da institutu bat zeinetan ezinezko bihurtu den klaseak ematea ere, ikasleek ez diotelako zentzurik hartzen euskaraz egiteari. Ikasleen sarrera berantiarra eta euskara bizitzarako beharrezko ez ikusteak euskararen aurkako jarrerak eragiten dituzte eta ikaste-irakaste prozesuetarako oztopo handia da hori. Ez dugu oraindik asmatu egoera hori nola kudeatu arrakastaz.
- Erronka moduan azaldu da **familien arteko harremana** sustatzea:
 - o Ikastetxe askotan proiektuen garapen prozesuan parte hartzen dute, asko gelara joaten dira.
 - o Aukerak aztertu behar dira gelaz/orduz kanpoko harremanak ere sustatzeko: kulturarteko jaiak ospatzen dira eskola askotan. Adibide polit moduan jaso zen urtebetetzeak eskolan ospatzearena.

4. galdera. Zeintzuk dira familien parte-hartzea sustatzeko gakoak? Zer dago ikastetxe eta irakasleon esku? Eta zer familien esku?

Zailtasunak:

- Gure lana oztopatu eta nahastuko duten beldurrez, irakasle eta gurasoen arteko espazioa mantendu nahi da askotan.
- **Bitarteko hizkuntzen faltak** gurasoen arteko interakzioak zaildu egiten ditu.
- **Parte-hartze kultura urria:** gurasoa asko arazoak daudenean edo zerbait eskatu behar dutenean gerturatzen dira eskolara, askotan soilik arrazoi berdinegatik deitzen ditugu irakasleok gurasoak.
- **Ordutegiaren uztarketa:** familiek ahal duten ordutegietan biltzeko prest gaude? Prest egon beharko ginateke?

Irakasleon erronkak

- Irakasleok **familiengan sinetsi** behar dugu, komunitateko kide direla sinetsi behar dugu. Horrek behar batzuk eragiten ditu:
 - o Hezkuntza komunitatea ondo definitu behar da: zer da?, nortzuek osatzen dugu?, zein funtzio ditugu?...
 - o Hezkuntza komunitatea ondo egituratuta egon behar da. Horrek eragingo luke kide bakoitzak bere gain erantzukizunak hartzea.
- Dinamika desberdinen bitartez **gurasoak eskolara erakarri** behar ditugu, era horretan eskolara gerturatu daitezten. Nola? Ditugun eta sortuko ditugun espazio eta jarduera horien helburuak aldeztu aurretik ondo zehaztu behar dira gaizki ulertuak ekiditeko.
 - o Formazio saioak antolatu: euskara, gaztelera eta informatika klaseak.
 - o Espazio informalak sortu: kafe-tertuliak.
 - o Espazio horietan ateratzen diren gaiak landu behar dira, tarte bat eskaini behar zaie.
 - o Harrera zaindu (ikasturtean zehar etortzen diren familien harrera zaindu behar da, ez soilik haurrei egiten zaien harrera): "Ongi etorri" programa (Donostian, Ordizian eta Zarautzen martxan dago).

- Gurasoen arteko interakzioak bultzatu.
 - Eskolako erabakietan parte hartzera gonbidatu: batzorde mistoak eratu, Eskola Kontseilua urtean 2 aldiz baino gehiago bildu (egun ez da nahikoa). Eskola batzuetan batzorde mistoak badaude, baina irakasleak aurretik biltzen dira eta den-dena prestatuta eramaten dute. Horrek eragozten du familiek erabaki garrantzitsuetan parte hartzea.
 - Ikaskuntza eta irakaskuntza prozesuan parte hartzera gonbidatu: talde interaktiboak.
 - Ikasturte hasierako bilerak berdiseinatu familien partaidetza eta familien arteko harremanak sustatzeko helburuarekin.

Familien erronkak

- Guraso Elkartek ondo antolatuta egotea.

Hezkuntza-sistemaren erronkak

- **Formakuntza** beharra:
 - Hasierako formakuntza: irakasle eskoletan familien parte hartzeaz hitz egin behar dugu.
 - Etengabeko prestakuntza: ezinbestekoa da irakasleon formakuntza. Teoria ondo dakigu, baina praktika?
- Familien benetako partaidetza sustatu behar da, **erabakitzeko ahalmena** eduki beharko lukete.